

ANIZTASUN PROIEKTUAK DBHn
PROYECTOS DE ATENCION A LA DIVERSIDAD EN LA ESO

- Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak (HBSP), DBH 1-2
- Bidelaguna programa
- Curriculum Anitzeko Programa (AC), DBH 3-4

IES Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI ikastetxeak aniztasunari erantzuteko ditugun baliabideak hauek dira:

- DBH-1 eta DBH-2 mailetan HBSP/PREE proiektua (17 ordu)
- Bidelaguna talde bat
- NCE/ACI dituzten ikasleei arreta emateko esleitzen zaizkigun PT irakasleak (2 irakasle)
- DBH-3 eta DBH-4 mailetan D.C. programa

Ordu kredituak bikoizketak egiteko zenbait arloetan (dagozkigunak talde-ikasle kopuruari erreparatuta) Baliabide guzti hauek planteamendu integral bateri erreparatuta erabiltzen ditugu, beti ere zenbait irizpide markatuz (adibidez, ez pilatzea neurriak talde-ordu berean etab...) ahalik eta ikasle gehienei heldu asmoan eta baita ordu kopuru gehiengan ere. Baliabide hauen erabilera irizpide inklusiboetan oinarritzen dira: HBSP/PREE proiektuko orduak eta kreditu orduak erabat, PT irakasleen jarduera gero eta gehiago datorren ikasturterako ordu hauek gehienak ere irizpide honi jarraituz erabiliko direlarik eta DC taldekoak programak ezartzen dituen baldintzetan oinarrituak. Kreditu orduak buruz, esan baita, erabiltzen direla aniztasunari arreta emateko, ikasleak talde txikiagoan egonda zenbait orduetan arreta banakakoagoa lor daitekeelako, adibidez, hizkuntzetan mintzamina / entzumena garatzeko (ingelese) edo baita jarduera espezifikoak burutzeko (Natur Zientziak laborategia...). Antolamendu honek ahalbidetuko luke ikasleen ikaste prozesua indartzea era zabal batean (maila aurreratua ere bai).

Aurten Bidelaguna programaren barruan talde bat daukagu, gehienez 12 ikaslez osatuta egongo dena, eta eskola orduetatik kanpo, astelehenean, asteartean eta ostegunetan arratsaldean 16:40-18:00 ordu tartean gure ikaslea izandakoa Joseba Vera monitorearen laguntza jasoko dutenak.

Aniztasunari erantzuteko programa ezberdinak aintzat hartuta, 2. ebaluazio ostean Ibilbide Akademikoak deritzogun saioak burutzen ditugu, batez ere DBH-2 eta DBH-3 mailatan. Hauetan zein izan daitekeen ikasleen ibilbide egokiena erabakitzen dugu irakasle taldeak bilduta: D.C. programa, osagarriko programak etab...

Bestalde, Gela Egonkorreko zenbait ikasleen integrazioa landu da DBH-1 mailako erreferentzia taldeetan. Bide hau datorren ikasturteari begira jarraitzeko eta sakontzeko asmoa daukagu. Ikastetxeko Urteko Planean ikus dezakegunez gure helburuen artean aniztasun arreta bermatzea aurkitzen da, beti ere irizpide inklusiboak kontuan hartuta, eta horretarako indartze neurriak ikasgelan ezartzeko prozedurak zehaztu eta planak gauzatzen goaz, proiektu hau izanik helburu horretara hurbiltzen gaituen pausuetako bat.

EGIN ETA EKIN PROIEKTUA

3F eta 4D DBH-ko arduradunak: Leire Agirre eta Pedro Azkarragaurizar

Ekintzailatza 4DBH.-ko arduraduna: Itziar Basterretxea

EGIN eta EKIN programari esker ikasleek, zeharka, ekintzailari lotuta dauden, funtsezko gaitasunak eskuratuko dituzte. Hau da, programaren helburua ekintzailatza bultzatzea da, eta horrez gain, enpresa munduko oinarriko kontzeptuak ulertzea. Helburu hori lortzeko, ikasleek enpresak sortzeko prozesuari lotutako kontzeptuak oinarriko mailan landuko dituzte. Horretarako, negozio-plan bat lantzea planteatuko da. Sortutako negozio-planek Bizkaiko Diputazioak antolatzen duen lehiaketan parte hartuko dute.